

FUNTSEZKO JARDUERAK



Gure aplikazioa ezagutarazteko, publizitatea erabiliko dugu gehienbat. Instagram eta TikTok aplikazioei ordainduko diegu Planbide aplikazioari buruzko publizitatea igotzeko. Modu horretan, TikTok eta Instagram erabiltzaile asko dituztenez, Planbide pertsona gehiagora iritsi daiteke. Beste aldetik, influencerrekin edo pertsona famatuekin lan egingo dugu, eta hauek gure aplikazioa publizitatuko dute diruaren truke.



Horrez gain, hitzaldiak egin eta eskainiko ditugu. Horien bidez, gure aplikazioa sustatu egingo dugu eta ezagutaraztera eramango dugu. Gure helburu nagusia ekitaldi hauekin, bezeroekin fideltasun-harreman bat sortzea da.

4 hitzaldi mota egingo ditugu, eta bakoitza prezio bat izango du:

HITZALDI MOTAK:	PREZIOA:
Ikasleentzat zuzendutakoak	250,00 €
Enpresentzat zuzendutakoak	300,00 €
Erakundeentzat zuzendutakoak	200,00 €
Guk antolatutako hitzaldiak	10€/Pertsona



Norbaitek gurekin harremanetan jartzen bada gure hitzaldiak eskuratzeko, honi buruzko informazio guztia gailu elektronikoaren posta bidez (Gmail) bidaliko diegu. Honetaz gain, hitzaldiei buruz gehiago sakondu nahi badute, eta ziur badaude gure zerbitzua eskuratu nahi dutela, bileraren bat planifikatu dezakegu bezeroarekin dena zehazteko.

Planbiden, bi bezero mota ditugu: enpresak eta erabiltzaile independenteak. Hauek, kuota desberdinak ordaintzen dituzte:

- Enpresak gure aplikazioa eskuratzuz gero, langile kopuruaren arabera hilabetero kuota desberdinak ordaindu beharko dituzte:

FUNTSEZKO JARDUERAK



Langile kopurua:	1-20	21-50	50-100	<100
Ordaindu beharreko kuota:	10,99 €	14,99 €	19,99 €	25,99 €

- Erabiltzaile independenteak, aplikazioa dohainik eskuratu ditzakete eta, jarduera “premium”-ak nahi izanez gero, 9,99€-ko kuota ordaindu beharko dute hilabetero.

Hori esanda, Planbide eskuratu eta aplikazioa erabiltzeko prest edukitzeko, erabiltzaileak hainbat argibide jarraitu beharko ditu. Hauek izango dira:

1. Lehenik eta behin, Planbide bi plataforma digitaletan aurkitu daiteke: App store-n eta Google Play-en eta horien bidez, gure aplikazioa deskargatu ahal izango dute. Horretarako, aplikazioan sartu eta “deskargar” botoia sakatzen dutenean, zuzenean gailu elektronikoan izango dute.
2. Planbide deskargatuta izaterakoan eta honetan sartzerakoan, aplikazioak saioa hastea eskatuko dizu; hau da, zure gmail-a eta pasahitza jarri beharko dituzu. Hori eginda, profil bat izango duzu plataforma honetan.
3. Aplikazioa erabiltzaileari moldatzeko eta arreta pertsonalizatu bat emateko, galdetegi bat bete beharko da, pertsona horren informazioari buruz, esate baterako, bere ohiturak, bere antolamendua eta bere egunerokotasunari buruz. Informazio pertsonal hori, bakarrik aplikazioan erabiliko da, hau da, ez da publikoa egingo ezta beste leku batzuetan agertuko, soilik Planbide erabilpenarako izango da.

Pausu hauek egin ondoren, prest egongo zara aplikazioa erabiltzeko.

Lehen aipatu dugun bezela, erabiltzaileak Planbide dohainik eskuratu dezakete, baina aplikazioaren barruan jarduera batzuk “premium” dira. Hona hemen zein jarduerak diren ordaindu beharrekoak eta zeintzuk ez:

❖ Ordaindu beharrekoak:

- **Produktibitatearen analisiak.** Hauek astero egiten ditu, gero emailtz horiekin zure errendimenduari buruzko informeak egiteko eta emankorragoa zaren uneak identifikatzeko. Hortaz gain, grafikoak eta estadistikak ere erabiltzen ditu, zure ohiturak aztertzeko eta zuk hobetzeko erak aurkitzeko.

FUNTSEZKO JARDUERAK



- **Laguntzaile birtuala.** Aplikazioa ordaintzean, jarduera hau instalatuta agertuko da; edozein zalantza izanez gero, laguntzaile horrengana jo ahal izango duzu. Beste aldetik, zalantzak modu pertsonalizatuan argituko ditu, tresna hau aplikazioak zuri buruz jasotzen dituen datuen bidez oinarrituta dagoelako. Gainera, zeregin batean edo arazo batean laguntza behar baldin baduzu, laguntzaile hau aholkuak eta irtenbideak ematen dizkizu.
- **Lehentasunak eta helburuak jartzen ditu.** Zure eginkizunak sailkatzen ditu garrantziaren arabera, benetan garrantzitsua den horretan arreta jartzen lagunduz. Gainera, zure aurrerapenak, tresna pertsonalizatuekin jarraitzen ditu zenbat aurreratu duzun eta ea zure helburuak bete egin dituzun ikusten laguntzen dizkizutenak.

❖ Dohainik diren jarduerak:

- **Zereginak gestionatzeko zerrenda pertsonalizatuak.** Zerrenda hauek zure egunerokotasun beharrei egokitzen dira. Gainera, zerrenda hauek automatikoki, zure zereginak planifikatzen dituzte zure beharren eta lehentasunen arabera.
- **Oroigarri adimenduak konfiguratu.** Data limiteren bat edo bileraren bat ez ahazteko, alertak eta notifikazioak jarri ditzazkezu, eta data hori iritsi baino lehen, Planbide automatikoki abisatuko zaitu.
- **Ikusizko antolaketa.** Etiketak edo koloreak erabiltzea atazak eta oharrak sailkatzeko. Arrastatu eta askatu, zereginak edo ekitaldiak berrantolatzeke.

Ordaindu beharreko funtzioak eskuratzeko, bezeroak hainbat argibide jarraitu beharko ditu. Hauek dira jarraitu beharreko pausuak:

- Funtzio horiek eskuratzeko, aplikazioaren barruan eremu bat egongo da; zertan datza, erabilera, ordaindu beharreko kuota... azalpenak ematen.
- Bezeroak funtzio horiek erabiltzea erabakitzen dutenean, hilabetero kuota bat ordaindu beharko dute.
- Ordainketa hori zuzenean beraien kontu korrontetik kenduko zaie hilabetea hasterakoan.
- Diru hori, gure banku kontura iritsiko zaigu.

FUNTSEZKO JARDUERAK



- Bezeroak momentu jakin batean erabakitzen badu, erabiltzaile premium ez izatea, guri jakinarazi beharko digu aplikazioaren bitartez.
- Bezeroek hilabete horretako 15. eguna baino lehenago jakinarazi beharko digute hurrengo hilabeterako kuota ez ordaintzeko. 15. egunetik aurrera ezin izango dute harpidetza utzi, hurrengo hilabetearen kuota ordainduko zaielako.

Hortaz gain, urte bukaeran sozietate gainera zerga ordaindu beharko dugu, hau da, lortu ditugun irabazietatik zati bat zergei zuzenduta dago. Hau ez da diru asko izango, ez baitugu etekin askorik lortu.